



EBAZPENA, IKASTETXE ETA PLANGINTZAREN ETA PLANGINTZA ETA ANTOLAMENDUKO ZUZENDARIENA, ZEINAREN BIDEZ IRIZPIDEAK EZARTZEN BAITIRA 2025-2026 IKASTURTEKO LEKUALDATZE-LEHIAKETAN ESKAINIKO DIREN PLAZAK ZEHAZTEKO, KIDEGO HAUETAN: BIGARREN HEZKUNTZAKO KATEDRADUNAK, BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKASLEEN KIDEGO, LANBIDE-HEZIKETAKO SEKTORE BEREZIETAKO IRAKASLE ESPEZIALISTEN KIDEGO, MUSIKAKO ETA ARTE ESZENIKOETAKO IRAKASLEEN KIDEGO, HIZKUNTZA-ESKOLA OFIZIALETAKO IRAKASLEEN KIDEGO ETA ARTE-IRAKASLEEN KIDEGO.

1.- Tratamendu bera erabiliko da lanpostu hutsak eta erresultak zehazteko.

2.- Ikastetxe bakoitzeko LPZn dagoen plaza-kopurua hartuko da abiapuntutzat, espezialitatearen eta hizkuntza-eskakizunaren arabera. Kontuan hartuko dira honako kidego hauetako lanpostuak: Bigarren Hezkuntzako Katedradunen Kidegoa, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa, Lanbide Heziketako Sektore Berezietao Irakasle Espezialisten Kidegoa, Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoa, Hizkuntza Eskola Ofizialetako Irakasleen Kidegoa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakasleen Kidegoa. Lehiaketa honetan ezin izango da eskaini ikastetxeko LPZn argitaratuta ez dagoen plazarik, ezta lan-kontratuko langileentzat edo Irakaskuntza Ertaineko Institutu Teknikoetako Irakasleen Kidegoko funtzionarioentzat gordetako plazarik ere.

3.- Hasiera batean, eskaini egingo dira 2025-2026 ikasturtean dagokion espezialitateko 17 eskola-ordu dituzten plazak, edo 12 orduko edo hortik gorako gainerakoak (16 ordu, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren lehen xedapen iragankorrean xedatutakoa aplikatuz maisu-maistren kidegoko funtzionarioek bete ditzaketen plazen kasuan). Hizkuntza Eskola Ofizialen kasuan, 18 eskola-ordu dituzten plazak bakarrik eskainiko dira.

Ez dira kontuan hartuko antzeko espezialitateetako orduak, ezta zuzendaritza-karguengatik, ikastetxeko proiektuengatik edo antzeko beste arrazoren batengatik murriztutako orduak ere.

4.- Oro har, dauden lanpostu huts eta erresulta guztiak eskainiko dira. Hala eta guztiz ere, lanpostu huts bat edo erresulta bat kendu ahal izango da, honako arrazoi hauetako batengatik desagertzen bada:

- Ikastetxeko talde-kopurua jaisteko aurreikuspena (hizkuntza-eredua alda daitekeelako, matrikulatutako ikasleak gutxitzen direlako, curriculum anitzeko taldeak eta/edo zereginen ikaskuntzako taldeak desagertzen direlako, heziketa-zikloak desagertzen direlako...).
- Irakaskuntzen fusio- edo integrazio-prozesuetan inplikaturako ikastetxeak (Eskola Mapa).
- Lanpostu huts bat kentzea gomendatzen duten beste egoera edo arrazoi batzuk. Arrazoi horiek kasuan kasuko Lurralde Plangintza Batzordean baloratu ahal izango dira.
- 1.hizkuntza eskakizuneko lanpostuak.
- Zeinu hizkuntzako lanpostuak.
- Atzerriko hizkuntzetan emandako, aniztasun kurrikularreko lanpostuak.
- Atzerriko lanpostuak, atzerriko beste hizkuntza baten eskakizunarekin.





- Espezialistako lanpostuak.

5.- Aurreko puntuan ezarritakoa aplikatuz, Ikastetxe eta Plangintzaren Zuzendaritzak, Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritzak, eta Ikaskuntza Berezien Zuzendaritzak lanpostu hutsen eta erresulten lehenengo proposamena egingo dute.

6.- Behin-behineko proposamena 2025ko abenduaren 17an argitaratuko da Hezkuntza Sailaren webgunean. Argitalpen hori posta elektronikoz jakinaraziko zaie sindikatu guztiei eta ikastetxeetako zuzendaritzeari, eta horiek horren berri eman beharko diete ikastetxeko irakasleei.

2025ko abenduaren 17tik, 2026ko urtarrilaren 09ra bitartean, bi egun horiek barne, interesdunek egokitzen jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

7.- Ikastetxe eta Plangintza zuzendariak eta Plangintza eta Antolaketa zuzendariak, dagozkien zuzendaritzetako zerbitzuei kontsulta egin ondoren, aurkeztutako alegazioak aztertuko dituzte, eta lanpostu hutsen eta erresulten proposamen berri bat egingo dute, sindikatuei bidaliko zaiena.

Proposamen berri hori, aurkeztutako zuzenketekin batera, Ikastetxeen, Lanbide Heziketaren Plangintzako, eta Ikaskuntza Bereziako Lurralde Batzordeetan eztabaidatuko da. Bileren aktak egingo dira, eta horietan lortutako akordioak eta desadostasunak jasoko dira. Aktak Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariari, Plangintza eta Antolaketako zuzendariari, eta Ikaskuntza Berezien zuzendariari bidaliko zaizkie, behin betiko proposamena onar dezaten.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data

Eugenio Jimenez Ibañez

Nicolás Sagarzazu Alzua

Isabel Mendiguren Laka

IKASTETXEEN ETA
PLANGINTZAREN ZUZENDARIA

PLANGINTZA ETA ANTOLAKETAKO
ZUZENDARIA

IKASKUNTZA BEREZIEN
ZUZENDARIA